

HERNANI BHI



ikasleentzako txokoa



**Munduko
gizaki
arraroak**

||

EIDER ORUEZABALA
UXUE LOPEZ (2.DBH)



**Krisi
Ekonomikoa**

Nolako etorkizuna
izango dugu gazteak?

||

ASIER SALABERRIA YARZA



**«Parkourra-
ekin fisikoa
lantzen
dugu»**

|||

RAUL MIHAI (2.DBH)

**Hildako haurrak ala
haur lapurtuak?**

|||

AINHOA SUDUPE (2.DBH)

**Zergatik egiten zaigu
hain zaila euskaraz
hitz egitea?**

|||

IÑIGO MONTERO

**Patxi Izko, zu bai zu
antiestetikoa**

|||

MARIA GRANADO ARRIETA

**Artizarraren igarotzea
ikusteko aukera izan
genuen**

|||

JON GONZALEZ
JOSU CATALINA

Garoña, noiz arte?

|||

MAIDER PEREZ ARZAK

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI BHI

Munduko gizaki arraroak

Biziko al zinatekete horrelako egoeraren batean?
Albiste hauekin ikus dezakezue pertsona batzuk oso larri daudela eta gu, berriz, oso egoera onean egon arren tontakeriengatik kexatzen garela.

✍ **EGILEA: Eider Oruezbala eta Uxue Lopez (DBH 2)**

TATUAI GIZONA

Modernitate berriekin erlazionatutako pertsona bitxiak ere badaude; esate baterako guinness record-a irabazi duen argentinarr bat bereziki. Guinness record-a irabazi du bere gorputz osoan 1400 marrazki dituelako. Gizon honek, musker baten bizitza eraman nahi duenez, oihanean bizi da eta musker baten antzera elikatzen da.



ZUHAITZ GIZONA

Gizon honek arazo larri bat du bere sistema immunologikoan. Horrek, bere gorputzetik sustriak ateratzea eragiten dio. Giza papilomaren birusa du eta AEBko mediku batek esan dio sei hilabete barru bizitza normalagoa izango duela. Bere gorputzak aldaketa handiak izango ditu. Horren ondorioz, gorputzeko atal asko erabiltzea galeraziko dio, baina behintzat eskuak erabiltzeko gaitasuna edukiko du.



MUNDUKO GIZONIK ALTUENA

Robert Pershing Wadlow, historian izan den pertsonarik altuena da. 1981ean jaio zen, garaiera eta pisu normalarekin. 5 urte zituenean, 168 cmko altuera zuen, eta 12 urterekin 210cm neurtzen zuen. Hori, pituitarian (hanketan dugun gihar bat) zuen gaixotasun batek eragiten zion. Gaixotasun horrekin etengabe hazten zen, horren ondorioz, 22 urterekin hil zen 272cm neurtzen eta 199kg pisatzen zuelarik.



ALTZOKO ERRALDOIA

Euskal Herrian ere antzeko kasu bat izan zen, Altzoko erraldoia, hala nola, Miguel Joakin. 1818ko uztailaren 10ean jaio zen, Altzo Azpiko Ipintza baserrian. Azkeneko aldiz neurtu zutenean, 2m eta 42cm ko altuera zuen, eta zabaleran eskuak luzaturik, mutur batetik bestera 2m eta 27cm. Joakinek, akromegalia/hazteko hormona gehiegi izatea izeneko gaixotasun larria zuen, etengabe hazten eta hazten hasi zen 20 urte zituelarik. 43 urterekin hil zen, gaixotasun batzuk jasan ondoren.



MUNDUKO GIZON LODIENA

Manuel Uribek, egoera honekin gaizki pasa du, bost urtetan ezin izan du ohetik altxa eta 600 kilogramoko pisua lortzera iritsi da. Massachusettseko Institutu Teknologikoari eta beste organizazio batzuei eskatu die laguntza argaltzeko. Haiei esker, 180 kilo argaldu ditu, eta orain 380 kilo bakarrik pisatzen ditu. Hau oso kasu bitxia da, berak esan duenez, gaztetan ikaskideen artean argalenetarikoa zenez, depresioan sartu eta asko jaten hasi zen. Zer motatako depresioa ote?



49
zenbakia

KRISI EKONOMIKOA

Nolako etorkizuna izango dugu gazteok?

KRISI ekonomikoa zer da? Nork daki. Guk gutxi dakigu; baina, bere ondorioak jasan beharko ditugu. Krisia luzea izango omen da, beraz hobe prest egotea.

Krisi ekonomikoaren ondorioak asko dira: bankuak kredituak ez ematea, enpresak ixtea, langabeziako tasaren igoera... tasa hau Europa osoko altuena da, Grezia bigarrenengo postuan dugararik. Krisi Ekonomikoaren

beste ondorio bat ere familia desauziatuen igoera da.

Espainiar estatuak, beste zenbait arazo ere baditu. Etxeen salmentak, Espainian 1.000.000 etxe baino gehiago oraindik ere hutsik omen daude.

Estatuak arazo horieri guztiei aurre egiteko zenbait erabaki hartu behar izan ditu. Erabaki horien artean hauek egon lirake: komunitate batzuetako oposaketan esekidura, langile publi-

koen soldaten izozketa ...

Erabaki onak hartu al ditu Espainiar gobernua?

Estatu honen panorama ikusita, asko dira beste estatu batera doazenak lan bila.

Baina, hemen geratzen garen gazteok zer nolako etorkizuna izango dugu?

✍ **EGILEA: Asier Salaberria Yarza (DBH 2)**



«Parkourrarekin fisikoa lantzen dugu»

Parkour, l'art du déplacement (desplazamendu arte) bezala ere ezaguna, ahalik eta hoberen puntu batek bestera mugitzea da, giza gorputzaren gaitasunak erabiliz. Horrek esan nahi du, bidean sortzen diren oztopoak, hala nola: hesiak, hormak... gainditzea.

Raul Mihai naiz, 15 urte ditut eta Parkourra praktikatzen dut. Gorputza sendo mantentzeko modu bat da. Jendea gimnasia joaten da eta gu kalean aritzen gara eskalatzen, saltoak egiten etab. Parkourrarekin fisikoa lantzen dugu eta baita burua ere, konfiantza lortuz, adibidez: salto bat egin aurretik ondo pentsatu behar da,

gero atsekaberik ez izateko eta saltatzerakoan konfiantza izan behar duzu ondo egiteko. Niri salto bat zaila iruditzen bazait ez dut egiten, eta gehiago entrenatzen dut egin ahal izateko.

Batzuetan, jendeak ni saltoka ikusterakoan hau esaten dit: *burua apurtuko duzu etab*. Beste batzuei ordea ez zaie gustatzen, denetatik dago. Batzuek pentsatzen dute Parkourrak lapurtzeko edo laugarren pisuko amonaren etxean sartzeko balio duela, baina hori ez da egia, bakoitzak bere arazoak ditu kirol hau praktikatzeko.

Gipuzkoan nahiko jendek praktikatzen du: Irunen eta Donostian

jende dexente dago; baita Bilbon ere. Gehienak hasi berriak dira. Askok ez dute kirol bezala hartzen, oso kirol berria delako eta ia ez duelako historiari; baina, militarren eta animalia askoren teknikak biltzen dituen kirola da (katuena, tximinoena...), teknika zaharren bilketak sortutako kirol berria dugu Parkourra. Beraz, ANIMA ZAITEZTE

Nirekin kontaktuan jartzeko:
Raul.MihaiADD@gmail.com

Youtube:
www.youtube.com/user/RaulADD

✉ EGILEA: Raul Mihai (2.DBH



Hildako haurrak ala haur lapurtuak?

Orain arte isilik egon diren familiak haur lapurtuen bila hasi dira gertatutakoa argitu nahian.

Lapurtutako haurren kasuak orain dela gutxi hasi ziren agertzen baina gaur egun puri-purian dagoen gaia da. Familia askok jarri dute bere salaketa; Gipuzkoan esaterako, 200 bat salaketa jarri dira dagoeneko eta EAEn, guztira, 600 bat.

Salaketa gehienak aztertzeko onartu dituzte eta gutxi batzuk frogatzen artxibatatu dira. Haurren bat lapurtu zieten susmoa daukatenek salaketa jartzera bultzatzeko

eta kasu hauek komunikabideetan ager daitezten, batzuek erakunde bat sortu dute, SOS Haur Lapurtuak elkarte, hain zuzen ere.

Aurkeztu diren salaketen ondorioz, epaileak hala eskatuta, hiru kasutan hilkutxa irekitzeraino heldu dira eta gorpuzkinak egon beharko zuten lekuan ez dute ezer aurkitu.

Horietako bat da Pablo Losaren kasua. Gauzak ondo, gaur egun bere arreba izango

zenak, 1977an jaio eta hil egin zela esan zioten, eta ondoren Polloeko hilerrian lurperatu zutela. Baina epaileak hala aginduta, hilkutxa zabaldu eta ezer ez zegoela egiaztatu zuten.

Adituek diote hilkutxa horietan noizbait haurren bat egon balitz hezurak behintzat geratuko zirela, eta beste kontu bat ere badago: haurra hilkutxan sartzeko garaian guraso eta familiakoei ez zitzaiela gorpurik erakutsi.

Beste datu harrigarri bat

ere badago: 1976ko datuen arabera, Donostiako Arantzazuko Amaren ospitalean urte horretan jaiotako haurren %30a lehenengo eguna igaro baino lehen hiltzen zela. Nola liteke hori? Nire ustez ezinezkoa da, ez baikaude Afrikan eta garai hartan gaur egun baina baliabide gutxiago bazeuden ere, ez da sinesgarria.

Honen guztiaren atzean garbi dago ez dagoela pertsona bakar bat, garai haietan holako gauzak egiten ibili zirenak bat baino gehiago zirela. Orain dela gutxi, esaterako, mediku batek haurren lapurretan parte hartu izana onartu zuen.

Hainbat lekutan irakurri ahal izan dudana bezala, batzuek uste dute haur lapurre-

tak, hasiera batean behintzat, arrazoi politikoengatik egin zituztela. Izan ere, hasiera batean errepublikarren seme-alabak lapurtzen zituztela uste da, 40.hamarkada inguruan, baina geroago diruagatik baino ez zutela egiten pentsatzen da. Gauza harrigarriena zera da: askoren ustez, lapurrak ez zirela gizarte maila baztertu edo baxuko pertsonak gizartean errespetatutako pertsonak baizik: medikuak eta mojak esaterako.

Hau guztia irakurri ondoren, pentsa ezazu, zuk nola hartuko zenuke zure gurasoek esango balizute haur lapurtua zarela? Zer egingo zenuke?

✉ EGILEA: Ainhoa Sodupe (DBH 2)

Zergatik egiten zaigu hain zaila euskaraz hitz egitea?

Euskara gero eta gutxiago erabiltzen da eta esaten da galtzen ari dela. Horretan guk, gazteok, erru pixka bat badugu. Guk ez dugunez erabiltzen, hori beste belaunaldi-tara transmititzen da eta horrela segitzen badugu, euskara benetan galduko da.

Gure ustez, gaur egun euskaraz hitz egitea hain zaila egiten zaigu, gure ingurukoek ez dutelako erabiltzen. Hau da, gaur egun jendeak bere lagunak egiten dutena egiten du, eta lagunak ez badute euskaraz hitz egiten, inork ez du euskaraz egiten. Askotan gertatzen da pertsona bakarra izatea euskaraz egiten duena, eta bere lagun guztiek gaztelaniaz mintzatzea. Azkenean

persona honek, euskaraz aritzeko ohitura galtzen du. Eta hori ari da gertatzen gaur egun.

Beste arazo bat da gure gurasoek hezkuntza gaztelera izan zela, eta askok euskaraz hitz egiteko ohitura galdu dutela. Honek guran eragin handia izan du. Beraz, gure ama hizkuntza gaztelera bihurtu da euskara alde batera utzita. Aipatu beharra dago, euskaraz gaztelarekin lehiatzeaz gain, atzerritar hizkuntzekin ere lehiatu beharra duela. Hizkuntza hauek gure eguneroko bizitzan duten eragina izugarria da. Honen adibide argia ingelesa da negozio, merkataritza, zientzia Internet munduen hizkuntza da; irratan entzuten ditugun abesti asko ere hizkun-

tza horretan daude...

Gutako askok gero eta euskara gutxiago egiten dugu, eta honek horrela jarraitzen badu, gero eta zailago egingo zaigu euskaraz ondo hitz egitea.

Horregatik, euskaraz hitz egiten ez dugunok esfortzu txiki bat egin behar dugu, eta gutxienez, lagunartean euskaraz hitz egin. Esfortzuak merezi baitu.

Azkenean gure adineko ia inork ez du euskaraz hitz egiten. Egia esanda nik nire lagunekin ez dut euskaraz hitz egiten, hori adibide bat da.


✉ EGILEA: Iñigo Montero eta Lander Gaspar

Patxi Izko, zu bai zu antiestetikoa

Orain dela egun batzuk Patxi Izkok, Osasuna futbol taldeko presidentea, emakumezkoen futbola antiestetikoa dela esan zuen. Badira jada urte batzuk futbola zabaltzen eta sustatzen ari garela, kirol hau oso gustuko dugun emakume batzuk. Gizonezkoek bezalaxe, guk ere ordu asko ematen ditugu entrenamendu eta partidetan, txikitik hain gustuko dugun kirol honetan. Gizonezkoek bezalaxe, beraz, guk ere errespetua merezi dugu. Patxi Izko pertsona ezaguna izanda, gainera, aurrerapausoak ematen lagundu ordez, komentario horiek egiten ditu. Izko jauna, emakume asko gara futbolearen aritzen garenak, geroz eta gehiago gainera, eta zuk nahiko zenuke, baina ez dugu amore emango, gure helburua lortu arte jarraituko dugu borrokan.

✉ EGILEA: Maria Granado Arrieta

Artizarraren igarotzea ikusteko aukera izan genuen



2012ko ekainaren 5ean Artizarraren igarotzea ikusteko aukera izan genuen, hau da, Artizarra eguzkiaren aurretik pasatzen ikusteko aukera. Hau ez da oso ohikoa eta beti gertatzen da bi aldiz nahiko jarraian; ondoren 100 urtetako tarte pasatu behar da berriz gertatzeko. Adibidez, orainoan 2004an eta 2012an gertatu da, eta hurrengo 2117an izango da. Seguru aski orain bizirik gaudenok ez dugu fenomeno hau berriz ikusteko aukerarik izango.

Igarotzeak 7 ordu iraun zuen eta Ozeano Barea zen tokirik onena ikusi ahal izateko. Eguzkiari begiratzeko betaurrekoak edo soldatzeko maskarak erabili behar izan ziren, Artizarrak eguzkiaren zati txikiak estali zuelako eta eguzkiaren erradiazioak kaltegarriak izan daitezkeelako.

Artizarraren igarotzeak XVIII. mendean mundu osoaren atenzioa erakarri zuen lehen aldiz, jakintsuek esan zutelako planeten arteko distantziak neurtzeko erabilgarria izango zela. Erabili nahi zuten sistema triangulazioa izan zen, horretarako distantzia handira dauden bi puntuetan kokatuta triangulazioaren bitartez neur zitezkeen Artizarrarekiko distantzia.

Ikertzaile eta pentsalari askok mundu osotik espedizioak antolatu zituzte igarotzea ikusteko, James Cook izan zen bat, bera Tahitiira joan zen, mende horretan Tahiti oso leku isolatua baitzen. Hala ere, neurketan ez zuten arrakasta handia izan XVIII. mendean Artizarra ikusteko zeuden lente optikoen irudia desenfokatu, eta kaxkarra eman zutelako, beraz, zientzialariek ez zuten nahi bezainbeste

daturik hartu. Gainera, argazki kamera hurrengo mendean asmatuko zen, XIX. mendean amaieran. Irudiak gordetzeko aukera emango zuten, eta honi esker lortu egin zen triangulazio sistema horrekin eguzki sistemaren tamaina neurtzea.

Urte honetako igarotzea, esan dugun bezala, bigarrena izan da, eta lehenengoa 2004an izan zen, bizirik zegoen inork ez zuen ikusita Artizarraren igarotzea bere begi propioekin. Eguzki teleskopiek Artizarraren atmosferari irudi zoragarriak ateratu zituzten. Baina, esaten dutenez, aurten 2012an sortu diren teknologi berriei esker, askoz ere kalitate hobea izango dute irudiek Hubble teleskopioak ateratzen dituen argazkien antzekoak.

EGILEA: Jon Gonzalez
Josu Catalina

Garoña, noiz arte?

Ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna zela eta, *Greenpeace*ko zenbait ekintzailek Garoñaren aurkako protesta egin zuten, instalazio horrek duen arriskuagatik.

Nire ustez, Garoña ixteko prozesua bereziki garrantzitsua da. Ikerketa batzuen ondoren, agerian gelditu da ez dela batere segurua eta kalte handiak eragingo lituzkeela istripu nuklearren bat gertatuko balitz. Horrez gain, beste baliabide batzuen garapena eragozten du (energia berriztagarriena, esate baterako), eta ingurumena kutsatzeko besterik ez du balio.

Laburbilduz, ingurumen garbi baterako bidean, nire aburuz, zentral nuklearrak ixtea aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke. Baina hori lortzeko, borroka egin behar dugu, eta gizartean erantzukizuna sortu, gure argudioak lau haizetara zabalduz.

EGILEA: Mainer Perez Arzak

Egileak:

